

## TOKI ENTITATEAK ETA UKRAINAKO KRISIA: INFORMAZIOA ETA GOMENDIOAK

(21 martxoak 2022)

NUKFK, dagoeneko, bi zirkular igorri dizkie toki entitateei Ukrainako krisiarekin lotuta Espainiako Gobernuko Ordezkaritzak, Nafarroako Gobernuak eta egiaztatutako GGKE-k helarazitako informazioarekin eta gomendioekin.

Orain arte igorritako informazioa indarrean dago eta honako estekan kontsulta daiteke:

<http://www.fnmc.es/eu/noticias/nukfk-toki-entitateei-zuzenduriko-ukrainako-krisiari-buruzko-informazioa-eguneratu-du/>

Bestalde, honako berritasunak egon dira:

1. Ohar honekin batera, erantsirik, Espainiako Gobernuko Ordezkaritzak igorritako Ukrainatik datozen herritarrentzako Harrera Planari buruzko dokumentua helarazten dizuegu.
2. Ordezkaritzak kontsultak egiteko honako helbidea jarri du eskura:  
[infolegalucrania.navarra@correo.gob.es](mailto:infolegalucrania.navarra@correo.gob.es)
3. Nafarroako Gobernuak ere posta helbide bat sortu du profesionalak kontsultak egiteko bai eta udalek kontsultak egin ahal izateko ere:  
[Profesionales.emergencia.ucrania@navarra.es](mailto:Profesionales.emergencia.ucrania@navarra.es)
4. Behin behineko babesarekin lotutako dokumentazioa Iruñeko eta Tuterako udaltzaingoaren bulegoetan lor daiteke. Iruñean, ordutegi berezia jarri dute horretarako arratsaldetan eta Gurutze Gorria, udaltzaingoaren bulegoekin batera, hitzordua antolatzeaz arduratzen da izapideak arintzeko.
5. Ukrainako gida-baimenak urtebeteko balioa du Espainian.
6. Gurutze Gorriak familia-harremana berreskuratzeko zerbitzua du, orain, Ukrainako krisia pairatzen duten pertsonak erabil dezaketena. Erakundearen zentroen bidez, familiako kideak bilatzen ditu.

7. Nafarroako Gobernuak telefono bidezko Dualia aldi bereko itzulpen-zerbitzua du bertako hizkuntza ez dakiten migratzaileei arreta eman ahal izateko eta ikastetxeen eta osasun zentroyen eskura jarri du. Zerbitzu hori udalen eskura ere jartzeko eskatu du NUKFk.